

ETXEGINTZARAKO LURREN FISKALIZAZIOA



Prokuradoreak erabili duten gaia, besteen artean, lurraren espekulazioak planteatzen duena izan da. Etxebizitza da gure artean prolema agiriarenetako ta garratzenetakoa. Agiriarena beste ezerreri erreferentzirik egin beharrik ez dagoelako. Garratzena, berriz, gizonaren premietan janariarekin eta jantziarekin batera irukote oiñarrikoena osatzen duelako.

Amaika esames ba dira etxebizitzekin azkarregi aberastu diranetaz, lurrekin, terrenoekin uste gabeko negozioak egin dituztenetaz. Inmobiliariak, lurren jabeak eta etxegilleak makiña bat diru bereganatu dute gizonaren eskubide nagusienetako baten desprezioan. Eta hau ez da demagogia, agirian dagoen zerbait baizik.

Lurraren espekulazioari frenu bat jartzeko ea komeni den edo ez lurren salbentarentzat fiskalizazio bat izan da, puntu oni dagokionez, prokuradoreen eztabaiden muiña, Gobernuak Korteetan proposatu duen legearen bitartez ohea izango da etxegintzarako lurren jabeak bere hoietan etxeak egiten astea espekulatzeari baiño. Posible ote da asmo hori betetzea? Era hontako lege baten bitartez zuzendu al diteke etxebizitzak planteatuta daukan prolema izugarria?

Italia'n azkeneko elezio hauen aurretik erdi ezkerreko gobernua osatu zanean, kristau demokratik eta sozialistak bere programan lurraren espekulazioarekin bukatzeko neurriak jarriko zituztela agindu zuten. Frantzia'n Defferre'k ezkertiarren izenean lehendakari-gai izateko saiaketak egin zituztanean beste horrenbeste egin zuen. Britainia Aundia'n berriz, Wilson'ek, oraindik gobernuko ez zanean, programaren baitan lurraren munizipalizazioa sartu zuen.

Herrialde hoietako esperientziak ez du itxaropen gehiegirik ematen. Gauza behar bezela aztertu ezkerre kasikan ezin ditekela bestela izan ikusiko da. Izan ere kapitalismo berriaren barruan proposamendu hoiak erreforma erreboluzionario batean bihurtu ditezke. Eta hori ez da posible hortarako estrateji konkretu bat planteatzen ez bada eta behar bezelako indarrarekin kontatzen ez bada.

Hori bai, giroak horrela eskatzen duelako, programa bati, joera bati, ezkertiar itxura eta usaia emateko komenigarria da horrelako zerbait esatea, gero beteko ez bada ere. Hori da gutxienean Britainia Aundia'n eta Italia'n gertatutakoa. Bi hoietan posible izan bada, puntu honi dagokionez gutxienez, itzeen eta egiteen artean dagoen diferentzia neurtzea.

R. A.

Gaurko "Nota laburra" idatzi dutenak, hauek dira: Rikardo ARREGI, Andoni ITURRIA, Andoni LEKUONA, Xabier LETE, Karlos SANTAMARIA, Joan Mari TORREALDAY.